

2016 ORTZEMUGA EGITASMO ESTRATEGIKOA

2010. urtetik aurrekontuaren murrizketaren aitzakipean, Ertzaintzaren langileoi euskal administrazio publikoko gainerakoei bezalaxe, murrizketa batzuk ezartzen ari zaizkigute, hala nola, Behin-Behineko Lan ezintasunarena, lanaldia gehitzea, antzinasunarekiko egunen ezabaketa, norberaren gauzetarekikoak, Itzarri ekarpenik ez egitea, lan-sari jeitsiera eta soldata izoztea, 2012. urteko 14. ordainketarik ez egitea, etabar, hau guztiari batzen badiogu Segurtasun Saileko arduradunak uko egiten diela osotasunean arautuko duen akordio berri bat negoziatzeari, langileri gabezia eta 2016 ortzemuga plan estrategikoaren ezarpen ezin okerrago, esan beharra dago Ertzaintza amildegira daramatela.

2016 ortzemuga plan estrategikoaren oinarrietan, adierazten da Ertzaintza zerbitzu publiko gisa herritarren beharretara bideratua, hauen eskakizunak artatuko dituen, bai segurtasunekoak eta baita asistentziazkoak ere.

Era berean, adierazten du herritarrekin harremanetan lehen lerroan dagoen langileria, gure zerbitzu guztiak ematerakoan bere ekimena izango duela, asistentziazkoak barne eta horretarako gizarte gaietan trebakuntza trinkoa jasoko dutela agindtzen du.

Plan honek baita ere dio, herritarrak ipiniko direla bere jardueraren erdigunean, bereziki delituen biktima izan direnak babestuz.

Gaineratuz ikerketa kriminala, polizia teknikoa eta zientifikoan izango du euskarri.

Bere ardatz estrategikoak dira:

Lehenengoa: Bere hurbiltasuna eta eraginkortasunagatik gizartearen aitortza maila altua erdiestea.

Bigarrena: Aurre hartze aktiboan oinarritutako zerbitzua eskaintzea.

Hirugarrena: Etengabeko hobekuntza

Laugarrena: Barne konpromizu eta kohesioa

Asmo teoriko honi zail da aurka egitea, ez bada bera ezartzerakoan soil-soilik ekonomikoak diren parametroak erabiltzen diren eta ez herriari zerbitzua ematekoak, orduan plan estrategikoa borondatearen adierazpen soilean geratzen bait da, eta errealitatea berarengandik

urruntzen doan einean bere ezarpenak argi erakusten du gutxien inporta duena Herritarrak eta Ertzainak direla.

Azalduko dut:

2013an abian ipintzen da, **ordurako jakinda zen eta aurreikusten zen antolaketa anabasa izango zeal, izan ere, ordurako 2014. urte azkenerako lanpostuen behin-behineko deialdia egin beharra izango zela jakina zen, bereziki agente mailen eta espezializazioen zerbitzu-egindikusunen arazoa konponduko lukeena (IKI ikastaroak bukatuta daude, Agente lehenenak, Ofizialenak, Bide Segurtasunekoak, Brigada Mugikorrekoena...), eta, agindu ziren egokitzapenak abian ipini ez diren arren (sistema informatikoak, izapidean erraztasunak dituen Instrukzioaren prozedura berria, egungo kalitate ereduaren burokratizazioaren berrikuspena, egun sentia...).** Sailaren arduradunak orduan abian jartzeko itsututa jardun zuten, eta haren aurrean esan genuen “**idien aurretik gurdia ipintzen ari zarete**” , Ertzaintzako gizon eta emakumeak kontuan hartu gabe habian jartzen ari zirela, alegia.

Horren ondorioa ikerketa arloan zerbitzu-eginkizun bidez egin diren deialdi ugariak dira, Ikerketan erabateko nahasmena sortu dutelarik.

Hori horrela, aldaketak abian jarrita, orain, 2014/05/28 datarekin Lan-zerrenda berria egiteko Idazkaritza Orokorretik eskatzen zaie Herri Segurtasun Arloari, ikerketa kriminaleko Arloari, Lurralde Buruzagitzei, etabar..., premia dagoela Unitate bakoitzak BERTAN DITUZTEN ERTZAINEN FUNTZIOAK JASOTZEA.

Hau dena bat-batekotasun eta egitasmoa premiaz abian ipintzearen zentzurik ezaren beste froga da. Izan ere, 2013ko abenduan Arloen murrizketa eta ikerketa zerbitzuaren berrantolaketa erabakitzen da, bai tokiko eta lurralde mailan zein maila zentraletan, eta berehala arloak indargabetzen dira eta deitzen dira zerbitzu-eginkizun deialdiak aldaketaren ondorioz gelditzen diren lan-postuen horniketarako. Orduan ez bazekiten zein funtzio beteko zituzten zein iripide dela-eta lan-postuak eman dira.

2016 Ortzemuga Planaren barruan, eta gizarte gaitasunetan trebetasun gisako formakuntzaz ulertzen denaz, abian jartzen da “KOMUNIKAZIOTIK AURRE HARTZEA” egitasmoa. Egitasmo hau hezkuntza zentroetan, jublatu etxeetan, etabar, hitzaldiak ematean

datza betiere gizarte multzo horiei jarduera jakin batzuetan ematen ziren arazoen berri emateko eta herritarrenganako hurbilketa erdiestearren.

Hitzaldi hauetarako langileri bolondresa eskatzen da, aurre baldintza batekin: administrazioarentzat hutsa kostua. Bada, aurre baldintza horiek onartzen dituen langileriak hitzaldi horiek egiteko arazo ugari izan dituzte:

Benetan inolako formakuntzarik ez zaie ematen, bi egun, bata irakasle gisa trebatzeko eta bestea materiala aurkezteko, ezta lan orduetan hitzaldiak prestatzeko aukerarik ere, hitzaldiak lotuta daude inoiz ez dutela jatorrizko unitatean inolako eragozpenik eragingo. Lantokian bere hutsa ez da betetzen, beraz, hitzaldia bukatu ondoren hitzaldia emateko utzi duen lanaz arduratu behar da eta honi gaineratu behar diogu hitzaldiak euskaraz emateko izan diren zailtasunak.

IKERKETA ARLOA

Plan estrategiko honek ekarri duen funtsezko aldaketa bat **Ertzainetxetan ikerketa eredu** berria ezartzea izan da.

Hemen bereizten dira: alde batetik guardietako zerbitzua delituen biktimak artatzeaz zuzenean arduratzen dena, salaketak jasotzen ditu, epaitegietara doazen atestatuak egiten ditu eta eredu berria ezarri aurretik **herritarrei ematen zien zerbitzua ezin hobearen**.

Bestalde, uniformerik gabeko ikerketaz arduratzen dena. Zehazki kaleko ikerketa egiten duena da (jarraipenak, entzuketak, etabar...)

Arazoa, uniformerik gabeko ikerketa indartzearen, Ertzainetxe guztietan guardietako ikerketako pertsonala indargabetuta uzten denean ematen da, zehazki, Ertzaintzako zuzendariaren 2013/11/29 zerbitzu aginduak dioena betez gero eragiten duen guardia zerbitzuko ertzain kopuru dela-eta ezinezkoa egieten du gure premia duten herritarrei zerbitzu egokia ematea.

Agindu horrek dio:

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ertzainetxe txikiek: %50 murriztuko dira, txanda bakoitzeko agente bat eta agente lehen batekin soilik geldituz zenbait ertzainetxe.

Gipuzkoako erdi mailako ertzainetxeak: %50 murrizketa izango du, bi agente eta agente lehen batekin geldituz.

Gainerako Ertzainetxeetan, murrizketa benetan %50era hurbiltzen da.

Murrizketa hauen ondorioak, biktimak ari dira ordaintzen, artatuak izateko amaituezineko itxaronaldiak jasanez edo **“bihar etor zaitez”** entzunez. Eta ertzainak beraiek ere bai, mugikortasun geografiko osoarekin.

Hainbesteranoko anabasa da non Saila bera aurkitu da Ertzainetxeen artean une bateko laguntza zehatza, edo txanda osorako bertaratuz laguntza emateko plan bat ezarri behar izan duen. Edo, premia horiek bete behar izan ditu uniformerik gabeko ikerketako pertsonala erabiliz, kasu honetan bere ikerketa utziz. Eta oraindik oporrak hartzen ez dira hasi, zeren eta oporrak hartzen direnean ertzainetxe txiki gehienetan ezin izango da herritarren eskaerei aurre egin, ez eta atestatuak egiteko orainarteko polizia praktika onari jarraituz bi pertsona behar izateari eutsi, bata Instrukture gisa eta bestea Idazkari.

Une honetan ikerketan lan egiten duten pertsonalaren etsipena erabatekoa da, iruzur egin diela uste dute, beraiek haintzat izan gabe joko arau guztiak aldatu dizkitela uste dute. Beraietako askok garaian indarrean zegoen arauen arabera ikerketa lerroa hautatu zuten, eta orain ikerketan ezarri diren aldaketek behartzen die nahi ez duten eta gustatzen ez zaein lan mota eta **lan baldintzen** arabera jardutera.

Adibiderik argiena ofizialordeena da, orain arte guardietako Instrukture Buruak ziren (epaitegietara bidaltzen ziren atestatuen arduradun nagusiak), aldaketak behartzen ditu uniformerik gabeko ikerketara igarotzea, eta Instrukzio Burua Agente Lehenera jeisten dute, hau izanik taldeko nagusi bakarra eta bera ez badago inork ez du ordezkatzen.

Beste adibide argi bat da Zabalburuko ertzain-postuan ezartzen denarena da, ertzain-postu honetan Ertzaintza guztiaren salaketen %30 jasotzen dira, eta horretarako agente lehen eta agente bat besterik ez daude, agente lehenak Bilbon dauden beste bi ertzain-postuetako salaketak gainbegiratzeko ardura ere badu, atestatuak Instruitzen ditu eta orain gainera salaketak hartzen ditu, ez da harritzekoa joan den asteen bertan salaketak ipintzeko itxaroten zeuden biktimei esan behar izatea hurrengo egunean etortzeko.

Baina hori ez da Bilbon bakarrik gertatzen, gero eta egoera orokorragoa da eta Gipuzkoan egunerokoa da.

Ikerketa eredu berri hau ezartzea hainbesterako zentzugabekeria da badirela unitateak non nagusirik agertzen ez den ere eta ikerketa taldeak egiten dirala.

ikerketa eredu berri honetarako ezta ez dira Ertzainak eta hauen premiak ere haintzat hartuak izan, uniformerik gabeko ikerketakoen kideak gehitzen dira, batzuetan arazo garrantzitsuak eraginez (ordutegi malguak), disponibilitate osoa, soldata txikiagoa, lekualdatzetarako eragiten zaizkien gastuak elkarbanatzeko jende gutxiago direlarik.

Sailaren arduradunak pertsonalen murrizketa hau defendatzerakoan funtzioak gutxitu zaizkielako dela diote.

Baina nola garatu da funtzio murrizketa hau!

Funtzio gutxitze hauen adibide ezberdinak

Sortu dira Ikuskatze bezalako zerbitzuak. Gipuzkoan Eibarren soilik sortu den zerbitzua, Tolosa eta Donostian oraindik ez dira sortu. Gainera, sortu dira ikuskatzeak gaueko lan-txandan jasotzen ez duen lan-egutegiarekin (**horrela nola beteko dira herritarren premiak?**)

Beste lurraldeetan gauean egin beharreko ikuskatzeak hiriburuetako ertzainetxeak egin beharrekoak dira langile kopuru urriekin.

Esandako guztia, ematen den lanean gainkarga, eta, lan karrerarako eragingarririk ezak edo hau hutsaren hurrengoa izanda, erabateko gogo gabezi eta zabarkeria eragiten dute.

Trafiko Unitateak trafiko istripu guztiak bereganatu izanak, nahiz eta oso ondo jakin trafikoko ikerketakoek ezinezkoa dutela denak artatzea, Bizkaian Erandion dago, Araban Iradierren eta Gipuzkoan Oiartzunen eta Bergaran (kasuren batean istripu lekura iristen ordu t´erdi iraun izan dute) , eta hau “konpontzeko” herri segurtasunekoei eman dizkie beharrezko Aginduak (pertsonal honek ez duenean ez espezialitaterik ez formakuntzarik ez eta beharrezko materialik ere) trafiko ikerketakoek iritsi bitartean istripuak beraiek artatu dezaten.

Alkholemia kontrolak, orainartean guardiako ikerketakoek egiten zituzten, orain Herri Segurtasunekoak izendatzen dira horretarako,

ondorioz herritarrei ematen zitzaien zerbitzuaren kalitatearen galera ematen delarik.

Informatikako delituak, delito mota hau goraka doa eta Ertzainetxeetan ikertzen da %90, delitua argitze aldera beharrezkoa den agiriak ulertzeko premiazko formakuntza ez dutelarik.

UNITATE ZENTRALEN EREDUAREN EZARPENA

Inteligentzia kontzeptua behin eta berriz erabiliz, zerbitzuen zentralizazio politika eratzen da, beraz, Herritarrengandik eta plan estrategikoaren oinarriekiko urrunekoa.

Antzinako terrorismoaren aurkako Arloko Unitate guztiak Inteligentzia Zentralaren Unitatean bateratzen dira lehen zutena baino zentralizazio handiagoarekin.

Kaleko ikerketako unitate bakarra ezabatzen da, beste funtzio batzuk dituzten pertsonala lan honetara behartuz eta soldata gutxiagorekin.

Sailburuak herritarren aurrean harro agertzen da 2016. urterako urteroko ENFSIren (Europako zientzia forentzearen sarearen) bilera geurean izango dugulako. Baina uko egiten dio LZan funtzio horietarako langileak beharrezkoa izan behar duten tituloak ezartzeari eta fakultatiko eta teknikari eskalako pertsonala 13ra murrizten du.

Multzo hauetako jendearen asperdura oso agerikoa da, eta, egun, Sailburutzaren jardueraren aurkako hiru epaibide prozesu daude.

HERRITARREN BABESERAKO ALORRA

Herritarren babeserako alorrean bereziki ertzainetxe txikietan dagoen langileri urritasuna salatu nahi dugu, baliabideen urritasun hau gehitzen da eta larriagotzen da Segurtasun Saileko arduradunek premiak betetzeko zerbitzutik kanpo inori ez hotsegiteko hartuta daukaten erabakiarekin.

Era honetara ez da zerbitzua erreforzatzen ezta herrietako jai nagusietan ere, axola ez dielarik zerbitzua gutxiengoan uztea eta arrisku egoeraren aurrean benetan inolako erantzun gaitasunik gabe.

Europako Legebiltzarraren Hauteskundeetan Bilboko ertzainetxean ez zen zerbitzua indartu eta premia guztiak txanda arrunteko zerbitzukoekin konpondu behar izan ziren.

Sailak Berak, pertsonal gai honetan, urritasunean egoteko hartutako erabakiak berarekin dakarrena da Unitateko zerbitzuak bete ahal izateko lan-txandako pertsonalaren erabateko mugikortasun geografikoa.

Mugikortasun honek berarekin daroa lekualdatzeak dakarren lanordu galera, gastuen gehitzea, eta zerbitzu kaskarragoa, gehienetan ertzaina joan behar izan duen lekua ez ezagutzeak eragindakoa.

Hau dena gerora egiteko asmo diren Bateraketak zuritzeko egiten ote da?

Pertsonen babeserako alorrean: erabateko aldaketa eman da zerbitzu honetan eta hemen nabarmentzen da nola arlo ekonomikoa lehenesten den babesten den pertsonaren segurtasuna eta Ertzaina berarenaren aurretik. Hemen, nahiz eta babeserako ohiko ereduak ezarritakoaren arabera gutxienik bi pertsona izan behar direla onartua izan, hala eta guztiz ere, soilik pertsona bateko jagoletza ezartzen dute, leuntasunez esanda segurtasun aholkulari izendatzen badute ere, benetan Gidari lanak soilik egiten dituelarik. Hori bai, noski, jagoten denaren segurtasun erantzunkizuna beregain izanda.

Lan postuak esleitzerakoan Legeak ezohiko sistema gisa ezartzen duena ohiko bezala erabiltzen du, eta era honetara daude atal osoak (B.M. Laguntzarakoa, Erreskatekoa, Urpekariak, Itsas atala) hau da, etengabeko Zergitzu-eginkizunetan.

Gaitzespen bereziz aipatu beharra dago ERTZAINETXEEN KUDEAKETA ELKARBANATUA deritsotena

Segurtasun Sailburuaren 2013/06/26ko zerbitzu Agindu bidez, onartzen da lan ildo berri baterako Zarautz eta Azkoitiako ertzainetxeen kudeaketa elkarbanatua (UROLA-KOSTA)

Nahiz eta Sailburuak behin eta berriz esan hau ez dela itxiera bat, errealitateak erakusten du Azkoitian benetan ematen ziren zerbitzu guztiak Zarautzera eraman direla. Hala, besteak beste, GGBB Zuzendaritzaren 2014ko apirilak 1eko data duen Zirkularrak izendatzen du, honen bidez Azkoitiako Ikerketako nagusiak eta Eragiketa Buru guztiak desagertarazten ditu. Are gehiago, ikerketa laneko bost

taldetatik hiru pertsona bakarraz osatua dago, udarako garaian zerbitzu hau itxi egingo delarik.

Benetan gertatzen dena da Azkoitiako Ertzainetxetik gelditzen den gauza bakarra etxea bera dela, eta ertzainetxe hauetako pertsonala gainerako herritar segurtasuneko Unitateei laguntzeko darabilte, era honetara ukatuz zeregin hau egiteko akordio arautzailean dituzten eskubideen erabilera. Bi unitate hauek duten hain landa eremu zabala ere ez da kontuan hartua izan landa-zaintza taldeak osatzeko bada ere, eta, horrela ematen dute Unitate guztietan beharrezkoa den baino zerbitzu gehiago.

Azpiegitura Dekretuaren azken aldaketak, ertzaintetxe gehiagoren itxiera aukera ezartzea zabaltzen du.

Hau guztia murrizketa gehiagoren ikuspegitik bakarrik ulertu dezakegu, bai pertsonala eta baita gastuarena ere, eta, noski, 2016 ortzemuga egitasmoak izendatutako helburuetatik oso urrun dago.

ELA SINDIKATUAK ULERTZEN DU GEZURREZKO ZERBITZU ATERKIN BATEN AZPIAN ERREAKZIO ERTZAINETZA EZARTZEN ARI DELA, egitasmoak defendatzen duen prebentziozko eta gertukoaren aurrean. Beraz, bertan esaten den HELBURUETAKO BAT BERARA ERE EZ DA HURBILTZEN, benetan zerbitzu publikoaren aurretik lehentasuna ematen zaiolarik pertsonal eta gastu murrizketari. Nahiz eta sailburuak behin eta berriro esan sistemarekin asmatu dela eta Ertzaintzaren multzoak ez duela bere egiten sindikatuak egiten dugun gaitzespen irakurketarekin, laster egiaztatuko dugu hala ez dela.

Exijitzen dugu Ertzaintza 2016 Plan estrategikoa atzera botatzea, ertzainetxeak ez ixtea, egin diren murrizketak berreskuratzea eta Negoziazio kolektiboari begirunea izatea, hala ez bada iruditzen zaigu 2016 Ortzemuga 2016 Amildegia bihurtuko dela.